BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO SAILA

3587

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 13koa, Herrizaingo Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendariarena, PCA-294-2011-VI administrazio espedientea -123/2011 prozedura laburtuko administrazioarekiko auzi errekurtsoari buruzkoa- Administrazioarekiko Auzietako Bilboko 1 zenbakiko Epaitegira bidaltzea xedatzen duena eta interesa izan dezaketenei epea jartzen diena, epaitegi horretan ager daitezen.

Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegiak eskatu du PCA-294-2011-VI administrazio-espedientea (123/2011 prozedura laburtuko administrazioarekiko auzi-errekurtsoari buruzkoa) bidaltzeko. Administrazio-espediente hori 13.038 lanbide-zenbakiko agenteak jarri zuen, 2010eko abenduaren 3ko Herrizaingo Saileko Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearen Ebazpenaren kontra. Eta ebazpen horren bidez ezetsi egiten da Giza Baliabideetako zuzendariaren 2010eko irailaren 14ko Ebazpenaren kontra jarritako gora jotzeko errekurtsoa. Azken ebazpen horrek borondatezko zerbitzu-eginkizunen deialdian (2010eko ekainaren 18ko Ebazpenaren bidez egina) onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda onartzen du, Lurraldeko Agintaritza eta Kontrol Zentro (AKZ)-Ardatz Unitateetan zerbitzuak emateko.

Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, hauxe

EBATZI DUT:

1.- Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegira bidaltzea eskatutako administrazio-espedientea.

2.- Lurraldeko AKZ Unitateetan lan egiteko lanpostuak, zerbitzu-eginkizunen bidez, borondatez betetzeko deialdian (2010eko ekainaren 18ko Ebazpenaren bidez egina) parte hartu zuten interesdunei epea jartzea, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegian, 123/2011 prozedura laburtuan, ager daitezen, bidezkoa irizten badiote, eta euren interesen alde egin dezaten. Epe hori, hain zuzen, 9 egunekoa izango da eta kontatzen hasiko da ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean.

3.- Jakinaraz bekie interesdunei.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 13a.

Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendaria,
IÑAKI CALONGE CRESPO.